

Osoko bilkura

Gasteizen, 2014ko ekainaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari eta
Uribarren, Patxi.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Ana Toledori; Miren Azkaratek ahala Patxi Goenagari; Jose Irazu «B. Atxaga»-k ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala An-

dres Urrutiari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Gasteizko Udaletxean hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta horien ahalak irakurri ditu. Ondoren, quoruma badela egiaztatuta, Euskaltzaindiaren ekaineko Osoko bilkurari hasiera eman zaio, eguneko gaien ordenaren arabera.

Lehenik, Idazkariordeak eguneko egitekoen protokoloa azaldu du laburki: hasierako gaiak, batzarraren etena, Udalaren harrera, lankidetzahitzarmena izenpetzea, eta euskaltzainburuaren eta alkatearen hitzak.

1. Aurreko Osoko bilkuraren (2014-05-30) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Bilera-agiri proposamenari dagokionez, B. Oihartzabalen ohar idatzia heldu da,

berak esandako hitzak ongi bildu daitezzen. Gauzak horrela, 5. orrialdeko 3. paragrafoko lehenbiziko esaldia honela jaso dadin eskatu du: «B. Oihartzabalek iraganean ere Euskaltzaindiak ikerketa-lanak egin dituela oroitarazi du, batzuk ikertzaileren artean oso estimatuak gainera». Halaber, paragrafo honetako bigarren esaldia ezaba dadin ere eskatu du. Bi zuzenketak onartu dira Osoko bilkuran.

Horiek horrela, bestelako oharrik ez dagoenez gero, bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika.

2.1. «Bibliako pertsona izenak». Jasotako oharra eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio. Maiatzeko batzarrean P. Uribarrenek Hegoaldean *Jose*, *Santiago*, *Markos* eta *Pedro* izenei buruzko proposamena berriro kontsideratzea eskatu zuen, Hegoaldeko gaurko liturgia-erabilera gogoan izanda. Osoko batzarrak eskari hori ontzat hartu eta Exonomastika azpibatzerdeari izen horien kasua berriro aztertu eta proposamen berria ekartzeko eskatu zion.

Horrela eginez, Exonomastika azpibatzerdeak bere ekaineko azken bileran izen horiek berriz berrikusi eta kontsideratu ondoren, gaurko batzarrera proposamen idatzi bat ekarri du. A. Mujika Exonomastika batzordeko idazkariak oharra irakurri du. Eztabaida izan ondoren, S. Alemanek testuak zekarren «gaitzesten» hitza «bazterten» hitzgatik ordeztzea proposatu du. Testua onartu da.

Horrela, adierazpenak *Josef*, *Jakue*, *Marko* eta *Petri* Euskaltzaindiak jada 1996an onartu zituela eta orain ere berresten dituela gogoratu ondoren (66. araua: *Santutegiko izen ohikoenak*), bere azken esaldian honela dio: «Hala eta guztiz ere, ulerturik Eliza kristauan, Hegoaldean, *Jose*, *Santiago*, *Markos* eta *Pedro* izenak erabiltzen direla eta, eremu horretan maiz erabiltzen baitira, tradizioa dutela, Euskaltzaindiak ez ditu izen horiek bazterten Hegoaldean liturgian erabiltzeko».

2.2. «Antzinateko antroponimia eta mitonimia: mundu grekoa». Jasotako oharra eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio. A. Mujikak esan du ez dela ohar idatzirik heldu. A. Iñigok galdera egin du, ea izen batzuk, *Ashoka* adibidez, zergatik sh-az eta ez x-az transkribatu diren jakin nahian. A. Mujikak erantzun dionez, Mesopotamiako kasuan ohiko idazkera bestelakoa izan arren (sumerieraren transkripzio jasoetan š transkribatu ohi dena **sh** transkribatzen da ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz, **x** katalanez, **sch** alemanez, **sj** nederlandez...; horregatik, euskaraz ere egokitu da). Indiar dagokionez, aspaldiko ingeles kolonizazioaren ondorioz, bertako izenak ingeles ohituren arabera moldatu eta hedatu dira azken mendeetan. Horregatik proposatu da euskaraz ere **sh** kontso-

nante-taldea bere horretan uztea, Indiako leku- eta pertsona-izenetan nagusia baita ingeles grafia.

Bestelako oharrik ezaz, proposaturiko zerrenda ontzat eman da.

2.3. «Antzinateko dinastiak» aurkeztu. Zerrendak Alfontso Mujikak aurkeztu ditu eta horiek prestatzeko erabiliriko irizpideez ere beharrezko azalpenak eman dizkie euskaltzainei. Dinastiaren sortzailearen izena ezaguna edota hurbila zen kasuetan, *-tar* euskal atzizkia hobetsi da, baina etorkizko aitalehena oso urruna edo ezezaguna zenean, greziar bidea onartu eta *-ida* atzizkiaz baliatzea nahiago izan dute, gainerako hizkuntzei jarraikiz. Aurkezturiko zerrendari oharrak egiteko epea uztailaren 28ra arte jarri da, baina horiek eztabaidatu eta erabakitzea iraileko batzarrean izanen da.

3. Batzordeetako, lantaldeetako, egitasmoetako eta zerbitzuetako 2013. urteko errendapenak (Gramatika eta Herri Literatura batzordeak) eta 2014. urteko planak (Euskara Batuaren Eskuliburua, Gramatika eta Herri Literatura batzordeak). Jasotako oharrak eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio.

2013. urteko bi errendapenei, bai eta 2014. urteko hiru plangintzei buruz ere oharrak ez denez, maiatzeko Osoko bilkuran aurkezturiko errendapenak eta plangintzak onartu dira.

4. 166. arauaren zuzenketa, aurkeztu.

Nafarroako Alkozko urtegira doan Ubagua ibaia Lezaun aldean hasi eta, Errezun zehar (Deierri), Muetz alderaino (Gesalatz) iristen da, urtegira baino lehen. Erabiltzaile batzuek helarazitako oharrei esker, arauko *Inarotz* erreka izen horrekin Lezaunen dela ezaguna adierazi da, baina Errezun eta Muetzen *Ubagua* deitzen dutela, mapa gehienetan agertzen den bezala, bestalde. Gauzak horrela, Onomastika batzordeak arauan *Inarotz* izenaren ordean *Ubagua* onar dadin proposatzen du, eta hura (*Inarotz*) sinonimoen kategoriara igaro dadin, hots, bigarren mailako izentzat eman dadin.

A. Iñigok esan duenez, hidronimoek sarritan arazoak sorrarazten dituzte maiz izen bat baino gehiago izaten dutelako, beren bidean iragaten dituzten herrien arabera.

P. Goenagak horrelako izen-aldaketetarako arrazoi sendoagoak eta oinarritua-
goak ikusi nahi lituzke. Erantzun zaio, bat etorri arren, hori ez dela beti posible

izaten, batez ere, euskara aspaldian galduriko eskualdeetan, lekuko fidagarririk eza-gatik. A. Arejitak aldaketak defendatu ditu, eta jasoriko datu eta informazioaren arabera ustezko toponimoak inoiz alda daitezkeela pentsatzen du. X. Kintanak esan du arau bat, oker emana bazen, aldatzeko ere zintzotasuna izan behar duela Akademiak, norbere hutsa ezkutatu eta beti-jakintsu itxura gordetzearren, eginiko okerra mantendu barik.

P. Goenagak uste du lekukotasunak garantiak behar dituela. A. Sagarnak esan du ibai batek izen bat baino gehiago izatea normala izaten dela, eta adibideak eskaini ditu. Bestalde, J. Lakarrak gogoratzen du ez dela ohikoa, etimologiaren egokitasuna inolaz ere zalantzan jarri gabe, irizpide etimologikoa izatea honelako erabakietarako irizpide nagusia. Iritzi arteko eztabaida batzuen ondoren, idatzizko oharra uztailearen 7rako egitea erabaki da.

Gai honekin amaitzeko, A. Iñigok 166. arauaren 3. zerrendaren onarpen-data gaizki jasota dagoela nabarmendu du. Izan ere, Tafallan eginiko bilkura 2011ko irailaren 30ean egin zen, ez 2011ko urriaren 30ean. Hortaz, data zuzenduko da.

5. Euskaltzaindiko ikertzaileen estatutua. Jasotako oharra aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio.

Zuzendaritzak, jasotako oharra eta eztabaidak orain arte emanikoa kontuan hartuz, *Ikerketarako Estatutua* berri du. Euskaltzainei eskuratu zaie testua eta idazkariordeak irakurri du. Ondoren, galderak egiteko tarte bat ireki da.

Galderen txandan, titulazioen kontuan, sasoi bateko ikasketak eta egungo ikasketak bateratzea komeni dela esan da, gaizki ulertuak-eta ekiditeko. Hori esanda, Gasteizko Udalak euskaltzainei egingo dien harrera egiteko, bai eta bi erakundeen arteko lankidetzaren hitzarmena izenpetzeko ere, etena egin da goizeko 11:20 direnean.

Osoko bilkurari segida eman zaio 12:15ean.

M L. Oñederrak, lehenik, E. Osa idazkariordearen irakurtzeko ebakera zaindu eta eredugarria goraiatu du. Ondoren, testuan galdu egin dela aitortu du, eta eskertuko zukeela testua aurretik izan balu, ere ustez, gauza batzuk ondo ulertzeko, patxada handiagoa beharko litzateke eta. Gehitu du, oro har, Osoko bilkuretan gai garrantzitsuen inguruko eztabaida gutxiegi dagoela bere ustez.

Andoni Sagarnak esan du 8. artikuluan, ez dela esaten doktoregoa behar duten ala ez, baina zazpigarrenean ordea, doktore izan behar dela esaten da, eta beraz,

doktoregoa izatea beharrezkoa dela. Bestalde, pertsona bat, irakasle izan gabe ere, doktore izan daitekeela azpimarratu du. Ondoren, J. Lakarrak unibertsitate-prozedurak gogoraziti ditu, eta, azaldu duenez, unibertsitateko irakasle ez diren doktoreak tesi-zuzentzaile izan daitezke, baina hori unibertsitateak berak onartu behar duela gaineratu du.

Aurkezturiko dokumentuari oharra egiteko epea uztailearen 8ra arte jarri da.

6. Esku artekoak.

6.1. J.-B. Orpustan saritua. Jean-Baptiste Orpustan hizkuntzalari eta ohorezko euskaltzainak, Mari Asun Landa idazlearekin batera, irabazi du 2014ko Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxak ematen duten Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien saria. Jean-Baptiste Orpustanen izena Euskaltzaindiko Zuzendaritzak proposatu eta Osoko bilkurak berretsi zuen. Hari zorionak ematea erabaki da.

6.2. Lankidetzaren hitzarmenak.

6.2.1. Ekainaren 3an *Herria* astekariak eta Euskaltzaindiak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Baionan, Akademiaren ordezkarietan. Astelehenaren izenean Janbattitt Dirassar presidentek sinatu zuen eta, Euskaltzaindiarenean, A. Urrutia euskaltzainburuak. Hitzarmen horrek *Herria* astekariaren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana sustatzea du helburu, eta euskararen eta euskal kulturaren eremuan gauzatuko da. Hitzarmen horren bidez, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia deritzon egitasmoa elikatzeko asmoz, *Herria* astekariaren euskarazko testu-masa Akademiaren eskuetan jarriko da.

6.2.2. Ekainaren 6an LANEKI elkarteak eta Euskaltzaindiak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Bilbon, Akademiaren egoitzan. LANEKI Helte eta Ikaslan elkarteek sortu zuten 2001. urtean, eta helburu hauek ditu: Lanbide Heziketarako materialak sortzea, euskaratzea eta erabiltzaileen eskura askotariko euskarrietan jartzea, bai eta hiztegi tekniko bat sortzea ere. Elkarteak 34.000 ikasle eta Lanbide Heziketako 79 ikastetxe publiko eta hitzarmendun batzen ditu, eta gaur egun D ereduan ikasten duten 8.000 bat ikasleengan eta 3.000 bat irakasleengan eragiten du. Beraz, LANEKI-ren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana euskararen normalizatorako eta euskal kulturaren zabalpenerako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da. Besteak beste, sinatu den hitzarmenaren ondorioz, LANEKI-k duen euskarazko testu-masa osoa Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko du, Akademiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokiaren corpusa aberasteko. Testu-masa hori Zientzia eta Teknika Hiztegia egitasmoa elikatzeko ere baliatuko du Euskaltzaindiak.

6.3. Euskaltzaindiaren urteko egutegia aldatzeko proposamena. Hurrengo Osoko bilkura uztailaren 18koa, Santurtzin beharrean egoitzan egitea proposatzen du Zuzendaritzak (2014ko ekainaren 12an onaturiko proposamena). Bertan, Osoko bilkuraren ostean, 2014ko maiatzaren 30ean izendaturiko ohorezko euskaltzainei diploma eta ikurra emango zaizkie. Proposamena onartu da Osoko bilkuran.

7. Azken ordukoak

7.1. .eus elkarte. J. M. Torrealdaik, Euskaltzaindiaren proposamenez elkarte-kidea eta presidentea denak, adierazi du bihar, ekainak 28, elkarte honek agerraldia egingo duela Bilboko Kafe Antzokian. Agerraldiaren xedea .eus domeinuaren 92 aitzindariak aurkeztea da. J. M. Torrealdaik argitu duenez, zerrenda oso anitza da, izaera, dimentsio eta jatorri ezberdineko entitateak biltzen dituelako. Era berean esan du, Euskaltzaindia sorreratik bertatik dela .eus Fundazioko kide. Nolanahi ere, Euskaltzaindia ez da egongo domeinua erabiltzen hasiko diren 92 aitzindarien artean. Ez Euskaltzaindia, ezta beste euskal erakunde esanguratsu batzuk ere, domeinuaren erregistroarekin arazo tekniko batzuk sortu direlako. Fundazioa auzia bideratzen ari da ICANN erakundearekin.

7.2. EiTBko Administrazio Kontseilua. A. Arejitak, Euskaltzaindiak proposatuta Eusko Legebiltzarrak EiTBko Administrazio Kontseiluko kide denak, esan du EiTBren jarduna hobetzeko asmoz, euskaltzainek helarazten dizkioten proposamenak, ekarpenak, iruzkinak edota oharrak bideratzeko prest dagoela EITBko Administrazio Kontseiluan. Gauzak horrela, euskaltzainei parte hartzea eskatu die.

Eta besterik ez dela, 13:00etan Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria